

Ardien erditzea

E.: eta gero noiz erditzen ziren ardiak, emen bezalatsu ala?

L.: bon, han erditzen eta buruilekotz hasten tun erditzen, buruilekotz, ba, ta ala-ala beerian luzernetan artzen tun, ordian, buruil, ta buruil, urri, azaro, abendo... Frangotan egerritan e joan gitun, ba joan tun. Ni ai izan nun, lau urtez ai izan nun ni eta erditze... Maite ninan eta ofizio ori, Paiseneat, nun oai, ardi-erditzeko denboa, ta Paisenean maite ninan, ta baninan launa, ta ordian ardi erditzeko... Erdian oro bestek artzen ziztenan, ta gu beti, beti garbian ta beti ardi ernariekilan, beti ardi ernariekilan, ta ori martxo artio, sei ilaite, ba, ta geo azui beankorrik geo uzten nintinan ba nik, geo bon, erditzeak ttipitzeaikilan bakarrik, geo ek sortzen ziren azuri berankorreria guzia gero ez ninan mendira eremaiten, beeiti nik, baninan eta volontaire-a erten zunan, garagarra biltzen zutelaik, garagarra ereiten bita an anitz kaalendako, ta ua biltzen zutelaikan, eta galtzen dun, oai maxinak uzten tin anitz buru, oai, buru zernahi, asteko ta bat, bixkar une atzuetan, ez dun hau bano gooro, ta ordian, hua erdi arrapatzen din, erdia bezala arrapatzen din maxinak, ordian hek erortzen zazkon frangotan maxinari, ta hek harrapatzen tine ardiek untsaxko, hala. Geo hek emaiten dielaikan, sortzen tun, ta ordian, heldu un bazka puxka at hola, ba oai, volontaire erten dun, volontaire, oai, bera jin bat, hua hua bazka una re hua, ah ba, hartan iiltzen zitunan gootik, ta geo ua zunan, uda guzia ni han beankorrekilan, ta ni gustian trankil, beti-beti zerratia, beti leku zerratian, nik ez ninan lanik jeus e, zonbait aldiz olaxet nunai largabixtatzen al banin noapait, largabixtak bainitin, ta are, oalxe pasten ninan denbora, oto atzuri so, ta.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filología doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala